

BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Gure ezaugarri nagusietako bat, bezeroekiko harremanak dira. Honela, hurbileko jende edo harremanen bidez, gure negozio ideia beste batzuei transmititzea da gure helburua.

Zehazki, **laguntza pertsonala, ez pertsonala eta autozerbitzua estrategiak erabiliko ditugu.**

Bezeroei, ahalik eta tratu honena emango zaie, hainbat baliabide eskainiz, haien beharrak asetuz eta kontuan hartuz.

Gure **bezeroekiko harreman mota nagusia laguntza pertsonala** izango da. Gu prest egongo gara bezeroen eskariak edo arazoak konpontzeko eta behar izatekotan, laguntzeko egongo gara. Pertsonalki, webgunetik, deietatik eta mezuen bidez izan daiteke gure harremana bezeroekin, gu izango gara honetaz arduratuko garenak, batez ere Irati, sarreraren salmentaz eta publizitateaz arduratuko delako. Hortaz, bezeroekin harreman ezutuagoa izango da.

Deiak egiteko, gure diskotekako telefono finko bat izango dugu, webgunean jarriko dugun zenbakiarekin, aldi berean, sare sozialen bitartez komunikatu ahal gaitzke.

Ondorioz, **zerbitzu zuena** eskainiko dugu.

Aldi berean, gure bezeroen ideiak eta proposamenak ikusi nahi ditugu, horregatik, gure webgunean, aparteko orrialde bat jarriko dugu bezorek haien iritziak, esperientziak, etab. Honela, leku anitzagoa eta jende guztientzako prest egongo den diskoteka sortuko dugula uste dugu, haien nahiak betetzeko eta iritzia kontuan hartzeko.



Beste alde batetik, sarrerak eta ticketak online bidez salduko ditugu, **autozerbitzua bultzatuz**. Honekin batera, **hatz sistema erabiliko dugu. Honek esan nahi du, baita autozerbitzua ematen dela hemen ere**, gure diskotekaren barruan, bakoitzak, haien hatzarekin gauzak ordainduko ditu, bai edariak, bai takilak alokatzeko, ...

Beste alde batetik, **influencer-ak** erabiliko ditugu **harreman iturri nagusi bezala**, honela, sozietate eta jende gaztearen artean gure proiektua transmititzea lortuko dugu, publizitate moduan erabiliko ditugu, diruaren truke.

